

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2022 Zerga premiazko araugintzako dekretua, apirilaren 5koa. Premiazko neurriak onestea, azkenaldiko ezohiko gertaerek eragindako krisiari aurre egiteko**

Azken garaiotan gertatu diren aparteko gertaerek eta pandemiak sortu dituen eta sortzen jarraitzen duen ondorio negatiboek berehala jardutea eskatzen diete foru erakundeei.

Horiek horrela, neurriak hartu behar dira. Hartara, Arabako Foru Aldundiak ahalik eta gehien bizkortuko ditu zerga itzulketak (balio erantsiaren gaineko zerga, nekazaritzako gasolioa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kanpaina). Gainera, krisiaren ondorio kaltegarriak arintzeko beste zerga neurri batzuk hartu behar dira lehenbailehen, ekonomiaren sektore kalteberenen egoera arintzeko eta haien likidezia bermatzeko.

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honek zerga neurri iragankor batzuk ditu. Hala, autoliquidazioak aurkezteko epeak aldatzen ez diren arren, zerga zor jakin batzuen aparteko zatikapena arautzen da, eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketa zatikatu jakin batzuk kentzen dira.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, handitu egiten da mikroenpresek 2022ko urtarri-laren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitartean abiarazitako zergaldietarako aplikatu beharreko gastuen ehuneko orokorra.

Azkenik, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, 2022rako, zabaldu egiten da araubide erraztu orokorreko gastu kengarrien ehunekoa, bai eta ardogileen jardueraren eta nekazaritza, abeltzaintza edo arrantza eta errepedeko salgaien garraioa egiteko jardueren araubide erraztuen arau bereziena ere.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako araudi inpaktuaren txosten laburtua aztertu da.

Horren ondorioz, lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sail-leko diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran eztabaidatu ondoren, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 8. artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak Foru Aldundiari ematen dizkioten eskumenak baliatuz, presako arrazoiak direla eta, honako hau

#### XEDATZEN DUT

##### 1. artikulua. Zerga zorren aparteko zatikapena

Bat. Hurrengo paragrafoan adierazten diren zergadunen zerga zorrak, hilero edo hiru hilean behin egiten diren autoliquidazioen ondoriozkoak, baldin eta borondatez aurkeztu eta ordaintzeko epea 2022ko apirilaren 1etik 2022ko maiatzaren 25era bitartean amaitzen bada, zatikatu ahal izango dira, bermerik jarri gabe eta berandutze interesen sortzapenik gabe, artikulua honetan xedatutakoarekin bat etorriz.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren zergadunak dira jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari dagozkionak, eta balio erantsiaren gaineko zergari lotuta dauden eta salbuetsita ez dauden higiezinak alokatzeagatik kapital higiezinaren etekinak lortzen dituztenak, baldin eta bi kasuetan egunean badaude zerga betebeharrak betetzeari dagokionez, bai eta mikroenpresak eta enpresa txikiak ere, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 13. artikuluan zehaztutakoak, baldin eta zerga betebeharrak egunean badituzte.

Bi. Jokoaren gaineko tributuetatik eratorritako zorrak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorren VII. tituluan araututako estatuko laguntzak berreskuratzeko erabakiak gauzatzeagatik eratorritakoak ezin izango dira izan artikulu honetan aipatzen den aparteko zatikapenaren xede.

Era berean, ezin izango dira artikulu honetan aipatutako zatikapen bereziaren xede izan konkurtso legediaren arabera masaren aurkako kreditutzat jotzen diren zenbatekoak.

Hiru. Aparteko zatikapen horren eskaera Arabako Foru Ogasunean egin behar da, autoliquidazioa aurkezten den momentuan, eta horretarako ezarriko diren mekanismoen bitartez.

Lau. Arabako Lurralde Historikoko Dirubilletaren Arautegi Orokorren 47. artikulutik 70. artikulura xedatutakoa ez zaie inolaz ere aplikatuko artikulu honetan araututako aparteko zatikapenei.

Zehatz-mehatz ezartzen dena da ezen Arabako Lurralde Historikoko Dirubilletaren Arautegi Orokorren 71. artikulutik 76. artikulura xedatutakoa artikulu honetan araututako aparteko zatikapenei aplikatuko zaiela, betiere hartan xedatutakoaren aurkakoak ez badira.

Nolanahi ere, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorren xedatutakoarekin bat etorrituz, zerga administrazioak ofizioz konpentsatu ahal izango ditu zatikapen berezi honen xede diren zerga zorrak administrazio egintza bidez aitortutako kredituekin zergapeko beraren alde.

Bost. Artikulu honetan aipatzen diren zergapekoek zerga zorra zenbateko bereko hileko 6 kuotatan zatikaturik ordaintzeko eskatu ahal izango dute. Zatikapen horien epea kasuan kasuko hilaren 10ean amaituko da.

Hileko eta hiruhileko autoliquidazioei dagozkien zatikapenen lehenengo kuota 2022ko abuztuaren 10ekoa izango da, baldin eta haiek borondatez aurkeztu eta ordaintzeko epea 2022ko apirilaren 1etik 2022ko apirilaren 25era bitartean amaitzen bada.

Hileko eta hiruhileko autoliquidazioei dagozkien zatikapenen lehenengo kuota 2022ko irailaren 10ekoa izango da, baldin eta haiek borondatez aurkeztu eta ordaintzeko epea 2022ko maiatzaren 1etik 2022ko maiatzaren 25era bitartean amaitzen bada.

Borondatezko aldian ordaintzeko ohiko epea amaitzen denetik aurreko bi paragrafoetan aipatzen den zatikapenaren lehenengo kuotara arte, zerga zorrak geroratuta egongo dira, eta ez da bermerik jarri behar, ez eta berandutze interesik sortuko ere.

Sei. Artikulu honetan aipatzen den zerga zorren aparteko zatikapena eskumen eremu honen arabera ebaztuko da:

– Zergadunekiko Harremanetarako zerbitzuaren buruak, zerga zorra 10.000 eurotik beherakoa bada.

– Ogasun zuzendariak, zerga zorra 10.000 eta 50.000 euro artekoa bada, zenbateko hori barne.

– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak, zerga zorra 50.000 eurotik gorakoa bada.

Zazpi. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuari baimena ematen zaio egokitzat jotzen dituen neurriak har ditzan, zatikatutako zerga zorrei dagokien kontrola murriztu gabe, aparteko zatikapen hori bizkorrago emateko behar diren neurriak har daitezten.

## **2. artikulua. Ordainketa zatikatuak**

1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak, baldin eta jarduera ekonomikoak gauzatzen badituzte, ez dira behartuta egongo Arabako Foru Ogasunean honako hauei dagozkien ordainketa zatikatuak egitera edo, hala badagokio, autoliquidatu eta ordaintzera: 2022ko lehenengo eta bigarren hiruhilekoak.

2. Ordainketa zatikatua sei hilean behingoa bada, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak, baldin eta jarduera ekonomikoak gauzatzen badituzte, ez dira behartuta egongo Arabako Foru Ogasunean honako honi dagozkion ordainketa zatikatuak egitera edo, hala badagokio, autoliquidatu eta ordaintzera: 2022ko lehenengo sei hilekoa.

3. Ordainketa zatikatu horren autoliquidazioa borondatez aurkezten bada, ezin izango da eskatu dagokion zenbatekoaren ordainketa geroratzeko edo zatikatzeke, eta ez da eskubiderik izango bidegabeko diru sarrera kontzeptua dela-eta zenbateko hori itzul dadin eskatzeko.

**3. artikulua. Etekin garbia zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuaren bidez kalkulatzeko arauak**

Indarraldia 2022ko zergaldirako baino izango ez duelarik, ehuneko 15ekoa izango da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 28. artikuluko 1. apartatuko b) letran aipatzen den ehunekoa.

**4. artikulua. Etekin garbia ardogileen jarduerari eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza jarduerari aplikagarria zaien zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan**

Indarraldia 2022ko zergaldirako baino izango ez duelarik, ehuneko 70ekoa izango da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegia onesten duen abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Arauaren 33. artikuluko 1. apartatuko c) letran aipatzen den ehunekoa.

**5. artikulua. Etekin garbia salgaiak errepidez garraiatzeko jarduerari aplikagarria zaien zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan**

Indarraldia 2022ko zergaldirako baino izango ez duelarik, ehuneko 70ekoa izango da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegia onesten duen abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Arauaren 34. artikuluan aipatzen den ehunekoa.

**6. artikulua. Gastuei buruzko arau berezia**

Indarraldia 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako baino izango ez duelarik, ehuneko 15ekoa izango da Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 32. artikuluko 4. apartatuan mikroenpresentzako ezarritako zerga konpentsazioari dagokion ehuneko 10eko ehunekoa, neurriak dakartzan zailtasunengatik, eta 32. artikuluko 4. apartatuko gainerako edukia aplikatuko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitartean hasitako zergaldiei baino ez zaie aplikatuko.

**AZKEN XEDAPENAK**

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta horrela adierazitako kasuetan, artikuluetan berariaz ezarritako ondorioak sortuko ditu.

Bigarrena. Gaitzea.

1. Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

2. Baimena ematen zaio Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuari foru agindu bidez luzatzeko Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu honetan jasotako zerga neurrien indarraldia eta ondorioak, baldin eta hori justifikatzen badute haiek onestea eragin zuten aparteko inguruabarrei eusteak.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga Premiazko Araugintzako Dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko apirilaren 5ean

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*

**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**